



25/2004 GOMENDIOA, URRIAREN 29^{KOA}, BILBOKO UDALARI EGINA, KEXAGILEA BIZTANLEEN UDAL ERROLDAKO INSKRIPZIOAN AGERTZEN DEN HELBIDEAN BIZI DEN ALA EZ EGIAZTA DEZAN, ETA, HAN BIZI BADA, TAO ZONAKO EGOILIAR TXARTELA EMAN DIEZAION, BALDIN ETA HORRETARAKO EZARRITA DAUDEN GAINONTZEKO BALDINTZAK BETETZEN BADITU.

Aurrekariak

1. Herritar batek erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen, Bilboko Udalak TAO zonako egoiliar txartela ukatu ziolako. Izan ere, udalaren ustez, kexagileak ez zuen behar bezala egiaztatu udalerrri horretan bizi zela, nahiz eta, interesdunak adierazi zigunez, txartela bera bizi zen zonarako eskatu zuen eta hantxe bizi zela agertzen zen Biztanleen Udal Erroldan.

Dirudienez, interesdunaren erroldako inskripzioan agertzen zen helbidea ez zectorren bat haren ibilgailuari buruzko agirietan agertzen zenarekin, eta horrexegatik ukatu zioten eskabidea.

2. Jakin ahal izan genuenez, 2002ko urtarrilaren 31ko Trafiko eta Aparkamendurako Ordenantzan oinarritu zen udalaren erabakia. TAO zonako egoiliar txartela lortu ahal izateko, Ordenantza horrek zera exijitzen zuen, besteak beste: interesduna Biztanleen Udal Erroldan izena emanda egotea, aipatutako zonako helbide batean, eta, gainera, helbide hori guztiz bat etor zedila zerga-helbidearekin, ohiko helbidearekin, trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergan agertzen denarekin, gidatzeko baimenekoarekin, ibilgailuaren zirkulazio-baimenekoarekin eta nortasun agirian agertzen denarekin (12 eta 14. artikulak).
3. Xedapen hori aztertu eta ondorio hau atera genuen: xedapen hori ezarriz interesduna txartel-eskabidea egindako zonan bizi zela egiaztatu nahi bazen, eskakizun hori desegokia eta neurritz gainekoa zela helburu horretarako, udalak justifikatzerik ez bazeukan behintzat. Izan ere, Biztanleen Udal Erroldako araudiaren arabera, erroldako datuak, berez, udalerrian bizi izatearen eta ohiko helbidearen froga dira; Ordenantzan aipatzen diren agiriei dagozkien helbideek ez dute, ordea, nolakotasun hori.



4. Udalari gure balorazioa helarazi genion, gai horretaz zein ritzi zuen adieraz ziezagun, baita eztabaidatutako baldintza hura ezarri zuenean zein helburu lortu nahi zuen ere.

Bere erantzunean, udalak onartu zuen Biztanleen Udal Erroldako datuak udalerrian bizi izatearen eta ohiko helbidearen froga direla, eta froga hori baliozkoa dela, kontrakorik egiaztatzen ez den bitartean. Baina, aldi berean, haxe adierazi zuen: *“todavía el Padrón es ciertamente deficiente en comparación con otros Registros públicos más perfeccionados”*.

Neurria justifikatua egoteaz, berriz, zera jakinarazi zigun: *“lo que el Ayuntamiento intenta con la exigencia de que los domicilios recogidos en distintos documentos sea coincidente, es que el arraigo de la persona que solicita dicha tarjeta sea real”*; eta, bukatzeko: *“cualquier medida tendente a lograr este fin, entendemos que no es desproporcionada; y sí garantista”*.

5. Gure ustez, arrazoi horietan oinarrituz udalak ezin zion ukatu egoiliar txartela kexagileari, haren erroldako inskripzioa benetakoa zen ala ez egiaztatzeko alde zurretik gutxieneko ikerketarik burutu gabe.

Gure ikuspegitik, erroldako inskripzioan interesdunaren helbideari buruz agertzen ziren datuez udalak zalantzarik baldin bazuen, helbide hura eta Ordenantzan aipaturiko agirietako batean agertzen zena bat ez zetozelako, zalantza horiek ezin ziren ebatzi, besterik gabe, azken agiri horri froga-balio handiagoa eman eta erroldako inskripzioa bere hartan utziz, bada jokaera hori legeriaren kontrakoa zen, gure ustez.

6. Horregatik, udalari idatzi genion ostera, gogoeta berri horien gainean mintza zedin eta interesduna Biztanleen Udal Erroldan agertzen zen helbidean benetan ez zela bizi egiaztatzeko zein jarduera burutu zituen adieraz ziezagun.

Gure eskaerari erantzunez, udalak honako hau baino ez zigun adierazi: jada erantzun ziela gai horren gainean egin genizkion informazio-eskaerei eta, bere ustean, guztietan informazio bera eskatu geniola.



Gogoetak

1. Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak –Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituenak– 16. artikuluan eta Toki Erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiak –uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak onartuak– 53. artikuluan ezarritakoaren arabera, udalerriari bizi izatearen eta ohiko helbidearen froga dira Biztanleen Udal Erroldako datuak.

Aldiz, ez da halako xedapenik ageri 2002ko urtarrilaren 31ko Bilboko Trafiko eta Aparkamendurako Ordenantzan (TAO) aipatzen diren gainontzeko agiriak erregulatzen dituzten araudietan –ordenantzaren arabera, agiri horietako helbideak eta erroldakoak berbera izan behar du–. Nahiz eta araudi horiek agiri jakin batean interesatuta dagoen pertsonaren helbidea agiri horrexetan idatziz jasotzea exijitzen duten, agiritatik bakar bat ere ez da berorietan agertzen diren bizileku eta ohiko helbidearen legezko froga.

Agiri horiek beste era bateko errealitateak egiaztatzen dituzte: hain zuzen, legezko xedapenek –agiri horien sortzaileek– kasu bakoitzean finkatzen dituztenak. Horrela, adibidez, gidatzeko baimenak ibilgailu bat gidatzeko gaitasuna frogatzen du –Gidarien Araudi Orokorrak, maiatzaren 30eko 772/1997 Errege Dekretuak onartutakoak dioenez–; zirkulatzeko baimenak, berriz, ibilgailua teknikoki egokia dela –Ibilgailuen Araudi Orokorrak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onarturikoak dioenez–, baina ez dute frogatzen agiri horien titularraren bizitokia, ezta haren ohiko helbidea ere.

Orduan, aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera, norbait TAO zona jakin batean bizi dela egiaztatzeko, nahikoa da Biztanleen Udal Erroldan izena emanda egotea, erroldan agertzen den helbidea benetakoa ez dela frogatzerik ez badago bederen.

2. TAO zona jakin bateko egoiliar txartela lortu nahi duen edonork zona horretan bizi dela egiazta dezan Trafiko eta Aparkamendurako Ordenantzak oro har exijitzen dituen baldintzak justifikatzeko, udalak zenbait arrazoi eman dizkigu. Alabaina, arrazoi horiek ez dute justifikatzen, gure aburuz, kexagileari txartel hori ukatzeko erabakia.



Kexagileak onartzen du erroldako inskripzioan agertzen den helbidea ez dela Ordenantzan aipatutako agirietako beste batean agertzen dena bera, baina, orobat, erroldako helbidean bizi dela baieztatzen du.

Hori hala bada, udalak Biztanleen Udal Erroldan adierazitakoa egia ez denaren zantzutzat uler dezake diskordantzia hori, lege-bidez ulertu ere. Baina, gure aburuz, diskordantzia horretan bakarrik oinarrituz ezin du txartela ukatu bere susmoa egiaztatzeko ikerketarik egin barik, eta, gainera, ezin du erroldako inskripzioa bere horretan utzi.

Arartekoaren iritzian, horrelako kasuetan egiaztatu egin behar da erroldako inskripzioa egiazkoa den ala ez, eta, egiazkoa ez bada, inskripzio hori errealitatera doitu dezaten sustatu behar du, dagokion administrazio-prozedura bideratuz (Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 17.2 artikulua eta Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren 62.1 artikulua).

Hala jokatu ezean, udalak froga-balio handiagoa emango lioke Biztanleen Udal Erroldan agertzen den helbideaz bestelakoa adierazten duen agiriari, eta jokaera hori, arestian esan dugunez, legeriaren kontrakoa da. Orobat, ez lioke jaramonik egingo errolda errealitatera doitu behar dela dioen legezko aginduari.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

25/2004 GOMENDIOA, urriaren 29koa, Bilboko Udalari egina

Egiazta dezala kexagilea Biztanleen Udal Erroldako inskripzioan agertzen den helbidean bizi den ala ez, eta, han bizi bada, eman diezaiola TAO zonako egoiliar txartela, baldin eta horretarako legez ezarrita dauden gainontzeko baldintzak betetzen baditu.